

# Amets Zubizarreta Etxaniz

**E** maila • 1 saria

Ni Amets Zubizarreta Etxaniz naiz eta 11 urte ditut. Beasaindarra naiz. Kirola egitea asko gustatzen zait. Irakurtzea eta idaztea gustuko ditut eta bertsoan ere jarduten naiz. Musika ere asko gustatzen zait. Asko poztu nintzen idazlan lehiaketan nire bertsoak 1. saria lortu zuela esan zidatenean. Ea gustatzen zaizuen bertsoa!



*Doinua:* Pasaiaiko herritik

## ONLINE

Sare sozialak modan  
jarrita txapeldun  
mugikorra daukagu  
gure oso lagun  
App-ak edukitzea  
nola doan degun  
kontrolatuta gaude  
denok gau ta egun

Argazkiak, whatsapp-ak  
youtuberrak non-nahi  
denbora galtze hutsa  
kristorena da bai  
dena da birtuala  
eta dena da guay  
benetan bizitzeko  
orain ez gara gai